

ZOZKETAREN PROZESUA

Aukera berdintasuna bermatzearren UDARABA kanpainako plazak lortzeko, zozketa sistema ezarri du Gazteriaren Foru Erakundeak.

Askoz jota, hiru neska-mutil ager daitezke izena emateko orri bakoitzean. Eskari orriak zenbaki bat izango du jarrita, hortaz, orri horretan ageri diren pertsona guztiek zenbaki berarekin parte hartuko dute zozketan.

Plaza hautatzeko hurrenkera da zozketatzen dena, eta horren bidez, eskatzaileak hautatu egin ahal izango du programako plaza, zeinetan izena eman duen.

Aldez aurretik ezarritako lekuan, egunean eta orduan egingo da zozketa, web-ean eta sare sozialetan jarraitu ahal izango delarik.

Programa bakoitzak (Udalekuak eta Gazte Bidaiak) zozketa bat eragingo du.

Zozketaren mekanika:

- Aurretik izena emateko orrietan ageri diren guztietatik zenbaki bat aterako da, eta horixe izango da zerrendan lehena.

- Beste zenbaki bat aterako da, 3 eta 9 artean, eta zenbaki hori izango da gakoa zerrendako hurrengoak zeintzuk izango diren jakiteko. Hau da, ateratako zenbaki hori oinarritzat hartuta taxutuko du ordenagailuak zenbaki batetik besterako hurrenkera, harik eta zenbaki guztiak hurrenkera berrian ezarrita geratu arte.

ADIBIDEZ: Aurretik izena emateko 585 orri badaude, eta ateratako lehenengo zenbakia 518 bada, eta bigarrena, 7, hauxe izango da emaitza:

1º: 518

2º. 526 (7 zenbakiren aldea dago)

3º. 534 “ “ “

4º. 542 “ “ “

5º. 550 “ “ “

6º. 558 “ “ “

7º. 566 “ “ “

8º. 574 “ “ “

9º. 582 “ “ “

10º. 005 (zazpi zenbakiren aldea dago, 585. zenbakira iristean, hurrengo zenbakia 001 baita, eta zenbaki hori da hurrengoa, ezarritako hurrenkera)

11º. 013 (7 zenbakiren aldea dago)

.....

.....

Bi programen zozketak bukatu ondoren, kasuan kasuko aktak jaso eta sinatuko dira.

Zozketa egin ondoren, programetan izena eman duen pertsona bakoitzak web-ean “Kontsultatu zure eskaera” atalean ikusi ahal izango du zein den egokitu zaion egun eta ordua instalazioa eta txanda hautatzeko, libre geratzen direnen artean (aurretiko zenbaki bakoitzak bi eta hiru plaza bitartean kontsumitu ahal izan ditu).